

**KONTZERTU DIDAKTIKOAK ETA
FAMILIAN
2010**

2010/01/07

Gaur aurkezten dugun **Kontzertu Didaktikoak eta Familian** 2010eko egitaraua BOSeq etenik gabe antolatzen duen XXII.a da. Gainera, gure Orkestra izan zen mota honetako programa bat abian jarri zuen Estatuko lehenengoa.

Ziklo hau 19 kontzertuz dago osatuta; horietatik, 12 Kontzertu Didaktikoak dira, eta 7 Kontzertuak Familian. Beraien bitartez, adin guztietako 8.700 bizkaitarregana heldu ahal izango gara.

Modu horretan, BOSen oinarrizko konpromisoetako bat betetzen da: musika sinfonikoa ahalik eta bizkaitarrik gehienengana eramatea. Helburu horrekin, larunbatetako kontzertu didaktikoak eskola-egunetara eta goizeko ordutegira aldatu zituen, eta, gainera, funtzio-kopurua handitu egin zen. Aldaketa horiek arrakasta handia izan zuten, eta, ondorioz, Bizkaiko ikastetxeek plaza-kopuru gehiago jartzeko eskatzen dute etengabe. Gure aldetik, saiatuko gara hori betetzen. Era berean, kontzertu gehiago eskaintzen ari gara Kontzertuak Familian zikloan, eta, modu horretan, gurasoek eta seme-alabek aukera gehiago dituzte musika sinfonikoa era atseginean ezagutzeko.

Kontzertu Didaktikoak

Soilik eskola-umeei zuzendutako doako kontzertuak dira. Iaztik, Bilboko Musika Kontserbatorioan egiten dira, eskola-orduetan eta goizez. Ekimen honi esker, Bizkaiko 4.320 ume eta gazte BOSen kontzertuetara joan daitezke, eta kontzertu horiek, gainera, eurentzat bereziki prestatuta daude. Bi astetarako daude programatuta (bata otsailean eta bestea martxoan), eta, bi kasuetan, asteazken, ostegun eta ostiraletan egiten dira, bi saiotan: 10:00etan eta 11:30ean.

Ziklo honetarako aukeratutako programek bi bidaia egiteko aukera ematen digute, imajinazioaren bitartez eta egitarau bakoitza osatzen duten musikari eta narrazioei esker.

Lehenengoan, **Moldava** izenekoan, **musikak ibai luze baten ibilbidean sartuko gaitu**, eta, irudimenaren bitartez, bidaia egingo dugu Txekiar Errepublikaren bihotzetik, Šumavan jaio eta Elba ibaian amaitu arteko 430 kilometroetan zehar. Egitarau honen abiapuntu gisa, Bedřich Smetana konpositore txekiarrek *Nire aberria* lanerako idatzi zituen sei poema sinfonikoetako bat erabiltzen da, eta, modu horretan, bidaia musikala egiten da ibai horretan zehar.

Bigarren bidaia, **Itoizetik Itoiz Suitera, abesti batetik orkestra batera**, azken 30 urteotako euskal musika-talderik garrantzitsuenetako baten ibilbidea errepasatzen du: Itoiz da talde hori, hain zuzen ere. Emanaldi hau, batez ere, nerabeei zuzenduta dago; izan ere, publiko mota hori da musika sinfonikoaren mundura erakartzeko zailenetakoa. Juan Carlos Perez bera arduratuko da bidaia musikal honen berri emateaz; bertan, ikusiko dugu nolako bidea egin duen lan hau egiterakoan: talde batentzat pentsatutako rockeko obra izatetik, orkestra sinfoniko batek joko duen musika-pieza izaterainoko eraldaketa ezagutuko dugu.

Kontzertuak Familian

Kontzertu hauek familia osoaren gozamenerako daude pentsatuta eta sortuta. Hori dela eta, larunbat goizetan egiten dira, oso prezio berezian: 4 euro (3 euro, BOSen abonatuentzat). 4.400 pertsonatik gora joan daitezke bertara.

Moldava ibai bide musikal gisa erabiliko duen Txekiako bidaiaz gain (Kontzertuan Familiak ekimeneko publikoak ere gozatu ahal izango du emanaldi horretaz), beste zenbait kontzertu eskainiko dira: alde batetik, perkusio-kontzertu ikusgarri bat; eta bestetik, Vivaldi, Bach, Mozart,

Holst, Britten eta Piazzolaren musikan oinarrituta dagoen eta hari-instrumentuek joko duten lanez osatutako kontzertua.

Azkenik, ziklo honi amaiera emateko, F. Mendelssohnen musikak, Per-Poc txotxongilo taldeak eta BOSeko musikariek oso obra berezia eskainiko dute: **Uda-gau bateko ametsa**, konpositore alemanak idatzia eta William Shakespeareren antzezlan batean oinarritua. Beharbada, lan honetako atalik ezagunena Eztei-martxa da; izan ere, mundu osoko milioika bikoteren ezkontzetako doinu nagusia izan da.

BBKrekin dugun lankidetzaz

Azken kontzertu horrek, gainera, beste ezaugarri bat dauka; izan ere, BBK Antzoki bat ari da eraikitzen Bilboko Kale Nagusian, eta BOSek bertan joko duen lehen aldia izango da. Aretoak 420 lagunentzako lekua izango du, eta lehengo Gran Vía zinema zegoen lekuan egongo da kokatuta. Kontzertuak Familiak ekimeneko emanaldi hau ekainean izango da, eta, kontzertua egiten denean, Antzoki berriak hilabete gutxi batzuk baino ez ditu izango, eta gu obra honekin bertan egotea ibilbide luze baten hasiera izango da BOSentzat, areto hori erreferentziatzkoa izango baita Bilbon.

Ezaugarri horrek, beste batzuen artean, argi erakusten du BBK-k zenbaterainoko konpromisoa daukan BOSekin, Bilboko Orkestrarekin, eta Bizkaiarekin. Babes hori musika-talde honen jarduera handi guztietan islatzen da: denboraldi sinfonikoan, Bizkaitik egiten diren ganbera-kontzertuetan, eta gaur aurkezten ari garen Kontzertu Didaktikoak eta Familian zikloan, besteak beste. Hori dela eta, eskerrik asko.

**KONTZERTU DIDAKTIKOEN ETA KONTZERTUAK FAMILIAN ZIKLOAREN
XXII. EDIZIOA**

BOS – BBK LANKIDETZAREN BARRUAN

EGUN A	EGITARAUA	OHARRAK
OTSAILA Asteazk. 17 – Osteg. 18 – Ostir. 19	<p><i>Moldava</i> <i>Musikak ibai handi baten ibilbidetik eramango gaitu</i></p> <p>B. Smetana, A. Dvorák eta F. Palaciosen musika Hermann Grosse-Jäger eta Fernando Palaciosen testuak</p> <p>Bilbao Orkestra Sinfonikoa Javier Irigoien, narrazioa</p> <p>Diego Martín, zuzendaria</p>	<p>KONTZERTU DIDAKTIKOAK Bilboko J.C. Arriaga Musika Kontserbatorioa Adinak: lehen hezkuntza Gaztelaniaz 10:00etan 11:30ean Leku-kopurua: 360, saio bakoitzeko</p>
OTSAILA Lar. 20	<p><i>Moldava</i> <i>Musikak ibai handi baten ibilbidetik eramango gaitu</i></p> <p>B. Smetana, A. Dvorák eta F. Palaciosen musika Hermann Grosse-Jäger eta Fernando Palaciosen testuak</p> <p>Bilbao Orkestra Sinfonikoa Javier Irigoien, narrazioa</p> <p>Diego Martín, zuzendaria</p>	<p>KONTZERTUAK FAMILIAN Euskalduna Jauregia Auditoriuma Adinak: lehen hezkuntza 12:30ean Gaztelaniaz 5 eta 11 urte bitartekoentzat gomendatua Leku-kopurua: 1.200</p>
MARTXOA Asteazk. 24 – Osteg. 25 – Ostir. 26	<p>Itoizetik Itoiz suitera Kantu batetik orkestrara</p> <p>Juan Carlos Pérezen musika eta testua</p> <p>Bilbao Orkestra Sinfonikoa Juan Carlos Pérez, narrazioa</p> <p>Zuzendaria zehaztu gabe dago</p>	<p>KONTZERTU DIDAKTIKOAK Bilboko J.C. Arriaga Musika Kontserbatorioa Euskaraz Adinak: 12 eta 17 urte artekoak 10:00etan 11:30ean Leku-kopurua: 360, saio bakoitzeko</p>

<p>APIRILA Lar. 24</p>	<p>Perkusiozko programa</p> <p>Mercedes Albainaren testua</p> <p>BOSen Perkusio Taldea</p> <p>Javier Irigoien, narratzailea</p>	<p>KONTZERTUAK FAMILIAN</p> <p>Euskalduna Jauregia A1 aretoa 11:00etan: Gaztedi Kluba 12:30ean: publikoarentzako salmenta Euskaraz 5 urtetik gorakoentzat gomendatua Leku-kopurua: 600, saio bakoitzeko</p> <p>Prezioa: 4 € (orokorra) 3 € (BOSEko abonatuak)</p>
<p>MAIATZA Lar. 15</p>	<p>Hari artean</p> <p>Vivaldi, Bach, Mozart, Holst, Britten eta Piazzolaren musika Javier Irigoien eta Belén Otxotorenaren testua</p> <p>BOSen Hari Taldea</p> <p>Belén Otxotorena, narratzailea</p>	<p>KONTZERTUAK FAMILIAN</p> <p>Euskalduna Jauregia A1 aretoa 11:00etan: Gaztedi Kluba 12:30ean: publikoarentzako salmenta Gaztelaniaz 8 urtetik gorakoentzat gomendatua. Leku-kopurua: 600, saio bakoitzeko Prezioa: 4 € (orokorra) 3 € (BOSEko abonatuak)</p>
<p>EKAINA Lar. 12</p>	<p>Uda-gau bateko ametsa</p> <p>Per-Poc txotxongilo konpainia F. Mendelssohnen musika</p> <p>Bilbao Orkestra Sinfonikoa</p> <p>Zuzendaria zehaztu gabe dago</p>	<p>KONTZERTUAK FAMILIAN</p> <p>BBK Antzokia 11:00etan: Gaztedi Kluba 12:30ean: publikoarentzako salmenta 4 urtetik gorakoentzat gomendatua Leku-kopurua: 420, saio bakoitzeko Prezioa: 4 € (orokorra) 3 € (BOSEko abonatuak)</p>